



TXOSTENA

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

ARAUDI APLIKAGARRIA:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- 27/2013 Legea, abenduaren 26koa, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.
- 13/2014 Foru Araua, azaroaren 17koa, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa.
- 3/2022 Foru Dekretu-Araua, azaroaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateek aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan 2023an aplikatu beharreko arau fiskalak eteteari buruzkoa.

AZTERTUTAKO TRAMITEA:

Tolosako Udalaren 2023ko Aurrekontu Orokorren onarpena



1/2013 Foru Arauak bi entitate desberdin bereizten ditu.

1.- FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK.

Entitate hauek administrazio izaera dutenak dira, hau da, dirusarrera komertzialekin finantziatutakoak ez diren zerbitzuak eman edo ondasunak ekoizten dituztenak.

Entitate hauen kasuan, helburuak betetzen diren egiaztatu beharko da kontuak bateratu ondoren eta finantzaketa ahalmenaren ikuspuntutik, Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europearrean jasotako definizioari jarraituz.

2023an udala da izaera administratiboa duen entitate bakarra.

HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Udalaren 2023ko Aurrekontuak 2.846.637,00 euroko defizita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.

Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko gastuen arteko diferentziarekin parekatu da.

Ondorengo taulan xehatzen da egindako kalkulua:

Sarrera ez finantzarioak (1-7 kapituluak)	29.531.422,00
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak)	32.378.059,00
SEC doikuntzak	0,00
Finantzaketa ahalmena / premia	-2.846.637,00

Covid-19ak eragin duen krisiaren testuinguruan, 2023rako, eta ezohiko izaeraz, etenda jarraitzen dute toki erakundearen arau fiskalak. Horren arabera, aurrekontu egonkortasunaren helburua eraginik gabe geratu da.



Hala ere, 3/2022 Foru Dekretu-Arauak, 2023rako $-0,0134\%$ ko defiziteko helburu bat ezarri du udalentsat. Tolosako Udalaren kasuan, defiziteko helburu hori dirutan 292.926,00 eurokoa da.

Helburu hau erreferentzia tasatzat hartu behar da. Baina, aurrekontuaren likidazioan defizit helburu hori gaindituz gero, udala behartuta dago plan ekonomiko finantzario bat egin eta onartzera.

Ikus daiteke udalaren finantzaketa beharra erreferentziazko defizita gainditzen duela.

Likidazioan berretsiko balitz, udalak plan ekonomiko-finantzarioa egin eta onartu beharko luke, plan hori kudeaketa tresna eta epe luzerako planifikazio tresna izan zedin.

Finantzen iraunkortasuna

2023ko abenduaren 31n, zor bizia, 2022ko likidazioan aurreikusten diren sarrera arrunten $17,78\%$ izango dela kalkulatu da.

Kalkulua egiteko, 2022ko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2023rako aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2023rako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartu UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

Hauetara dira kalkuluak:

Epe luzeko zor bizia 2022-12-31n:	2.231.697,00
Mailegu berriak 2023an	3.775.000,00
Amortizazioak 2023an	928.363,00
Epe laburreko zor bizia 2023-12-31n	0,00
Zor bizia 2023-12-31n:	5.078.334,00
2022ko eskubide likidatuaren aurreikuspena eragiketa arruntetan:	28.569.762,00
Zor bizia / eskubide likidatuak	$17,18\%$

2023. urterako zor biziaren helburua etenda dago.



Gastuaren araua

2023an gastu konputagarria 30.686.189,00 eurokoa izango dela aurreikusten da.

Ondorengo taulan xehatzen da egindako kalkulua:

	2023	2022
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	32.378.059,00	33.442.399,00
Zorraren interesak:	60.000,00	1.000,00
SEC doikuntzak, exekuzio mailagatik:	-3.520,00	-3.642,00
Admin.publikoen ekarpen finalistekin finantzaturako gastua:	1.628.350,00	1.211.800,00
Gastu konputagarria:	30.686.189,00	32.225.957,00
Gastu konputagarriaren hazkundera:	-%4,78	

2023. urterako gastu arauaren helburua etenda dago.

ONDORIOAK

Toki entitate honek gainditu egin du 2023 ekitaldirako ezarritako erreferentziazko defizita. Egoera hau aurrekontuaren likidazioan mantenduko balitz, 3/2022 FDAREN 1.3 artikulua ezartzen duen moduan, derrigortuta legoke plan ekonomiko finantzario bat egin eta onartzera.

Plan hori kudeaketa tresna eta epe luzerako planifikazio tresna bat izango da, baina haren betetze mailagatik neurri gehigarriak hartzeko obligaziorik ez da egongo.



2.- FORU ARAUAREN 1.2.b) ARTIKULUKO ENTITATEAK.

Entitate hauek merkatura bideratutakoak dira, hau da, dirusarrera komertzialekin finantziatutakoak diren zerbitzuak eman edo ondasunak ekoizten dituztenak.

2023an ondorengo bi sozietate hauek dira:

- Tolargi S.L.
- Tolosa Gasa S.A.

Sozietate hauetan, aurrekontu egonkortasunari dagokionean, helburua da oreka finantzarioa izatea. Ondorio horretarako, oreka finantzariotzat ulertuko da galerarik ez izatea, entitate bakoitzari aplikagarria zaion kontabilitate planaren arabera.

Ezarritako helburua betetzen dela egiaztatu beharko da entitate guztietan, banan-banan hartuta.

HELBURUA BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

2023rako Tolargi S.L. eta Tolosa Gasa S.A. sozietateetan ez da galerarik aurreikusten. Tolargi S.L.ren kasuan 114.915,00 euroko irabaziak aurreikusten dira eta Tolosa Gasaren kasuan, 181.324,00 euro (Tolosako Udalaren %60ko partizipazioari dagokiona, 108.794,40 euro).

Beraz, sozietate hauen 2023ko kontuen aurreikuspena aztertuta, egoera oreka finantzariokoa da.

Tolosa, 2022ko abenduaren 14a

Kontuhartzaile akzidentala

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Egonkortasuna